

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko otsailak 23

Badatoz
aratusteak

Ibarra
futbol zelaia
amaituta
dago

"Arrisku
soldata"
programa

**Herriari itxura berritzeko
arauak martxan**



**BERE ISILTASUNAK
EMANGO DU ZER ESANIK.**

Laguna Diesel



RENAULT

BALBULA ANITZEKO



Mozorrotuko zara aratusteetan?

Laura Alonso
(Ikaslea)

Bai, mozorrotuko naiz. Nire lehengusi-narekin pasatuko dut eguna. Monja jantzia utzi didate eta hortaz mozorrotuko naiz.




Aitor Pastor
(Langilea)

Ez dakit mozorrotuko naizen, baina hemen egongo naiz. Urtero azken momentuan pentsatutako zerbaitetaz mozorrotzen naiz. Beti nire kontura mozorrotzen naiz.



Jesus Garai
(Dendaria)

Ez, aurten ez daukat mozorrotzeko asmorik, zahartuegi nago horretarako. Hala ere astearterako bazkaritxo bat egitea pentsatuta daukagu koa-drilatxo batek.



Maria Victoria Lopez
(Etxeakoandrea)

Hemen egongo naiz, baina ez naiz mozorrotuko. Sekula ez naiz mozorrotu aratusteetan. Hala ere kalean egoten den giroa gustatzen zait.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Zaborraren problematika aztertzen

Lagun agurgarria:

Deba Garaiko Mankomunitatea eta Udalako Ingurugiro Eskolatik (Arrasateko Udala), otsailetik maiatzera arte eskualde honetako herri guztietan "Zaborraren problematika aztertzen" kanpaina martxan jarriko da; ekintza horren barruan sartu diren aktibitate zein horien helburuen berri emateko zuzentzen natzaizu.

Prestatutako ekintzak O.H.O.ko 6. eta 7. mailako ikasleei zuzenduta daude, 1.500 neska mutil baino gehiago izango direlarik. Ikasleen zentruetara eramango diren aktibitateek (tailerrak, solasalditxoak, diapositiba emanaldia...) bi orduko saio bat osatzen dute. Zaborra, zergatik arazoa?. Zaborraren eboluzioa, Zabor poltsaren azterketa. Zer egin zaborrarekin?... Birziklaia. Gaur egungo

egoera, eta 50 urte barru... dira aktibitateen izenburuak.

Helburuei dagokienez asko dira gai honekin lotuta egon daitezkeenak, besteak beste: Zaborrek sortaraz dezaketzen ingurugiro arazoaz jabetu. zaborra tratatzeko erabiltzen diren metodoak ezagutu. Gure herriko kontenedoreen funtzioa hobeto ezagutu eta horien garrantziaz jabetu. Zaborra birziklatzea Naturaren defentsarekin erlazionatu. Gure eskualdean zaborra tratatzeko erabiltzen den modua (labe erraukslea) ezagutu, alde onak eta txarrak, eta dauden alternatibak aztertu (zabortegiak eta birziklatzea).

Aldez aurretik zure laguntza eskertuz, jaso ezazu agur bero bat.

U.I.E.ko Zuzendaria

Gaztetxean 4. urtemuga ospatu zuten



Egun polita ospatu zuten Gaztetxean otsailaren 11n, Gaztetxeko 4. urtemuga zela eta. Horregatik hainbat ekitaldi egin ziren, hauen artean: bazkari eder bat, mus, tute eta partxis txapelketa eta amaitzeko kontzertua izan zen Fliying Rebollos taldearekin.

Bazkarian 35 lagun inguru egon ziren. Arratsadean mus, tute eta partxis txapelketak jokatu ziren eta irabazleak ondorengoak izan ziren: musean, "Txisko" eta Salva Rodrigez gelditu

ziren irabazle eta bigarren Ion Ander Ugalde eta Angel Irure. Tutean berriz, neskak izan genituen txapeldun, Enar Valdezate eta Eneida Egurza hain zuzen ere eta bigarren Olatz Iglesias eta Ion Ander Ugalde gelditu ziren. Azkenik partxisean, "Kabuto" eta Txemak garaipena lortu zuten.

Lerro hauetatik Gaztetxeak eskerrak eman nahi dizkio, alde batetik **Udaletxeari** etxafleruak emateagatik eta bestetik **Eroskiri** trofeoak patzizatzeagatik.

Urtearen hasieran 252 lagun zeuden langabezian

Aurtengo urtearen hasieran, biztanle aktiboen kopurua kontutan hartuz, 252 langabetu daude Atxabaltan, INEMeko datuen arabera. Hauen artean 88 gizona eta 164 emakumezko. Adin taldea kontutan izanik, 25etik 29urte bitartekoek erakusten dute langabezi portzentairik altuena, emakumezkoek %33,5a osatzen bait dute eta gizonnezkoek berriz, %28,5a.

Adin horretatik aurrera langabetuen kopurua gutxituz doa poliki poliki, horrela 55 urtetik gorako atxabaltarrak ez dago INEMen hitz emanda. Datu hauek iazko urtarri-leko datuekin konparatuz, iazko langabetuen kopurua haundiagoa zen 271 lagunekoa hain zuzen ere. Hauen artean 114 gizonnezkoak dira eta 157 emakumezkoak; aurtengoa baino kopuru parekatuagoa.



Zikloturista taldea martxan da berriro

Zikloturista taldeak martxoaren 5ean emango dio hasiera aurtengo ibilaldiei. Martxoan ekin eta urrirarte igandero igandero izango dituzte irteerak eta guztira 2.215 Km. burutuko dituzte. Lehenengo irteera, esan bezala, martxoaren 5ean, Dorletara izango da. Ibilbidea ondorengoak da: Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasateko bariantea Eroski, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arlaban, Dorleta eta Aretxabaleta. Guztira 39 Km. Irteera goizeko 10etan izango da.


KONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

A R E T X A B A L E T A




BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 28
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

MAITE ILEPAINDEGIA

Sarasate, 1 ☎ 79 59 05
ARETXABALETA

GEMES

EPILATERM
Min gabeko depilazioa
Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

IBARRA FUTBOL ZELAIA AMAITUTA DAGO

Otsailaren 19an ziren Ibarra futbol zelaia inauguratzeko asmotan. Hala ere, zailtasun teknikoek eta eguraldi txarrak oztopatu dituzte zenbait alditan egin beharreko lanak.

Momentu honetan beldar artifiziala jarrita dago eta zelaiko marrak ere margotuta daude. Aste honetan bota da hare berezia zelaian zehar. Hare berezi honekin zelaia egokitu egiten da, gerora begira zelaia arazoak izan ez ditzan Beraz, futbol zelaia amaituta dago baina aurrera begira armailak, aldagelak, taberna e.a. egiteko asmoa dago.

Datozen partiduak

Hilaren 22an, zapatuan UDAk kanpoan jokatuko du Anaitasunaren kontra.



Lehenengo erregionalekoek ere zapatuan, Anaitasunaren kontra jokatuko dute baina azken hauek Ibarra futbol zelai berria izango dute partidua jokatzeke aukera. Partidua arratsaldeko 4,30etan izango da. Neskek bergararren aurka neurtuko dituzte indarrak, hauek ere Ibarra jokatuko dute zapatuan goizeko 11,30etan.

Azkenik, domekan hilaren 26an ere izango da partidurik, UDAk infantilek goizeko 10,30etan jokatuko dute ordizitarren kontra.

Inauguraketa eguna

Martxoaren 5ean inauguratuko da Ibarra berria. UDAk Eskoriatzaren kontra jokatuko du. Derbi polita ikusteko aukera izango da beraz.

TRIL emakume taldeak dantza ikastaroa antolatu du

Tril emakume taldeak euskal dantzen ikastaroa antolatu du datozen martxo eta apirilerako. Erakutsiko diren dantzak "Mutxikoak" eta "Beinke Loramendi" (San Migeletako dantza) izango dira. Martxoaren 3an hasiko da ikastaroa eta amaitu berriz apirilaren 28an egingo da. Ikastaroa astelehen eta ostiraletan izango da 8etatik 9etara.

Apuntatzeko Loramendiko lokalean otsailaren 28a baino lehen. (Lehenengo Pagaldai tabernan).

Prezioa: Gazte eta langabetuak: 500pta. Nagusiak: 1000pta.

JANTZI DENDA

ASENSIO


Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

SHOT!
grabaciones

SHOT! grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Eskatu Pabiloia
☎ 943-79 37 51



ARRASATE

Gipuzkoa

**CONSTRULAN
ARQUERO ANAIK**

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11
Tfno eta faxa: 79 01 51
ARETXABALETA

**GARBITU
S. KOOP**

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

BADATOS ARATUSTEAK

Aurtengo aratusteak gainean ditugu eta aurtengainera inoiz baino lehenago emango zaie hasiera. **ARATZ**, atzeratuen aldeko elkarteak, atzeratuen erabateko integrazioa bultzatu nahian, eguen zuri egunerako, otsailaren 23rako, jai polita antolatu du.

Horrela, egun berezi horretarako, arratsaldeko 6,30etan Aretxabaletako trikitilariekin plazatik irtengo duen kalejira antolatu du. Bertan herriko atzeratuek ilara luze bat osatuko dute eta gura duzuenok parte hartzera gonbidatuta zaudete. Ondoren arratsaldeko 7,00etan, **GOENKALE**ko lagun aratusteetako pregoia ikusteko aukera izango da herriko plazan. Bertan izango dira, **Jose Mari, Karlos, Mertxe, eta Don Luis**. Bukatzeko, 8,30ak aldera dantzaldia izango da **LAJA ANAIEKIN**.

Otsailaren 26an, domekan, goizeko 10etan txistulariekin diana izango da. Ondoren 12,00etan, **"MOZOLOAK"** txarangaren etorrera eta jarraian herriko kaleetan zehar kalejira. Gero, eguerdiko 12,00etatik ordu 2etara koadrilei desfilatzeko ordua iritsiko zaie, eta ordubatean Loramendi Taldeak **"TXINO DANTZA"** eskainiko du.

Arratsaldeari hasiera emateko, 4,00etan, **"MOZOLOAK"** txarangak ekingo dio kaleak girotzeari. Berandutxoago, arratsaldeko 7,00etan, Santa Ageda mutilek aureskua dantzatuko dute eta jarraian aurtengo Kukumarru lehiaketaren sariak banatuko dira.

Eta egunari amaiera emateko, 10,30etatik 12,30arte kalejira eta dantzaldia egongo da **MOZOLOAK** txarangarekin.

Koadrila irabazleetzako sariak ondorengoak izango dira:

16 urtetik gorakoentzat:

- 1.-35.000 pzta.
- 2.-25.000 pzta.
- 3.-15.000 pzta.
- 4.-10.000 pzta.

16 urtetik beherakoentzat:

- 1.-15.000 pzta.
- 2.-10.000 pzta.
3. 7.000 pzta.
- 4.- 5.000 pzta.

OHARRA: *Kuadrilen desfileetan, epaimahaiak*



parte hartzaileek sortzen duten giroa kontutan hartuko du. Horretarako ez da beharrezkoa inon apuntatzea, baina kuadrila bakoitzak identifikazio bat eraman behar du bistan.

Otsailaren 28an, asteartea, arratsaldeko 3retan **"INCANSABLES"** txarangarekin emango zaio hasiera egunari. Ondoren 5,00etan Japoniar bonbak jaurtiko dira herriko plazan. Gero 6,30etan, buruhandi eta **INCANSABLES** txarangarekin, kalejira egongo da eta 10,30etan **TXINO**aren hiletak izango da, urtero moduan Mitarte kaletik plazarantz irtengo du eta hemen erre egingo da. Aurtengo aratusteekin bukatzeko, **"INCANSABLES"** txarangarekin gaueko 12,30ak arte, kalejira izango da.

OHARRA: *TXINO*aren hiletara lutoz jantzita eta kandelaz joatea gomendatzen da.



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86

ARETXABALETA

PABILOI INDUSTRIAL BERRIA ERAIKI BEHAR DA

Udalak Otxoa Markole baserriaren ondoan industri pabiloi berria eraikitzeko lizentzia eman du.

Pabiloiaren neurriak hauek izango dira: 48 x 36 metro, guztira 1.728 m² oinarekin. Eraikuntza Ederlaneko pabiloi beisaren antzekoa izango da eta 34 aparkamentu izango ditu.



Toki honetan eraikiko da pabiloia

Arbizelai baserria bota egin dute

Otsailaren 8an, Atxabaltatik Arrasatera bidean zegoen Arbizelai baserria Udalaren kanpaina batean sartu da baserria botatzeko erabaki hau. Izan ere, Udalaren asmoa herria bera zein herri ingurua txukundu eta apaintzea

da. Erabaki horiekin hondar-egoeran dauden era-biltzen ez diren edifikazio zaharrak bota eta herriaren itxura hobetu nahi da. Gogoratu behar da baserri honen aurretik Iturbeko lantegi zaharra eta Zubikua baserria bota egin zituztela.

Santutxoko Ermita berrizteari ekin diote




Joan den otsailaren 16an hasi ziren Santutxoko Ermita konpontzen. Ermita konponketa lanik egin gabe denbora luzean egon da eta berritzeko premia du. Berritze lana honako hau izango da: lehenengo orma guztiak pikatu, gero sarrera konpondu eta azkenik teilatua.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAETA

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

ANGELINES



Autozerbitzua
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42

IZOTZ TABERNA

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

Aurtengo Kilo- Metroak jaia

Gipuzkoan euskara eta ikastolen alde antolatzen den ekitaldia Donostian egingo da, Urriaren lehenengo igandean. Lanak, ostera, urte osoan luzatzen dira bai antolaketa aldetik, bai baliabideak bilatze aldetik. Zentzu honetan, Alde Zaharrean, Abuztuak 31 kalean, denda iraunkorra ireki du antolaketa taldeak, Gabonetatik aurrera martxan dagoena. Lerro hauen bitartez Donostiarrei eta Donostiara hurbiltzen den orori dendara hurbiltzeko deia egiten diete honetan buru-belarri ari direnek.

Argia

Bertsolariya "Lau haizetara "

1931. urtean Juan Jose Makazaga Mendiburuk sortu, 1932an desagertu eta 1990an berrargitaratzen hasi zen aldizkari honek, aro berriko 5. zenbakia atera berri du. Arretaz irakurri behar da bertso aldizkari hau, urte oso bateko jarduna barneratzen bait du bere orrialdeetan. Lau Haizetara elkartearen bertsolaritza sailekoek gomendatzen dutenez, aldizkari bertsuak irakurtzeaz gain, hobe dasatu ahal izateko, musika jarri behar zaie bertan idatzirik dauden bertsoei

Argia
(95-02-12)

Gipuzkoako bertsolari txapelketa egingo da udazkenean

Gipuzkoako 1995. urteko bertsolari txapelketa egingo da aurtengo Gipuzko-

Aurtengo ere gainean daukagu KORRIKA, gure hizkuntzaren aldeko erakustaldi eta ekimen handia.,

KORRIKA 9ak, orain arteko korrika guztiak bezala, lelo bat dauka "JALGI HADI PLAZARA". Orain dela 450 urte Beñat Etxeparek idatzitako "Euskara jalgi hadi plazara, dantzara...mundura" esaldia abiapuntutzat hartuz, herritar guztiak kalera aterako gara euskararen alde korrika egitera.

"Badator Korrika"



Olatz Oñaderra

AEKko irakaslea


Aurtengo KORRIKA Garazitik Gasteizera joango da, martxoaren 17an hasi eta martxoaren 26an bukatuko da. Ohitura den bezala gure bailaratik ere tipi-tapa konturatu orduko pasatuta egongo da, baina merezi duen ongi etorria emango diogulakoan nago.

Aurtengo, bere etorrera oso goiztiarra izango da. Martxoaren 23an goizeko 6:30ak aldera etorriko da Arabako lurraldetik zehar, hau dela eta ATXABALTARROK Gellao ostean hartuko dugu testigoa. Beraz aurtengo euskararen alde korrika egin nahi duenak goizean goiz hasi beharko du.

ako Bertsolari Elkarteak hala erabakita. Udazkenean jokatuko da txapelketa. Parte hartu nahi duen orok martxoaren 2a baino lehen izenabizenen berri eman beharko du Bertsolari Elkartearen bertan. Bi urrats izango ditu txapelketak, bata kanporaketa izango da eta txapelketa

saioa bestea. Txapelketan parte hartuko dute lehen urratsean aurreneko postuetan geratutako zortzi bertsolariak eta 1993. urteko Euskal Herriko Txapelketan Naguzian parte hartu zuten 22 gipuzkoarrak.

Egunkaria
(95-02-21)



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

EXPRESS

AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

ZUHAITZ
jatetxea



ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
79 48 77 ARRASATE

Olatz Iglesias eta Ana Garcia burubelarri beraien lanean



- **Izena:** Olatz Iglesias
- **Adina:** 23 urte
- **Ikasketak:** "Imagen y Sonido" karrera Andoainen
- **Enpresa ikerketa:** Bideo produktora txikia.

Olatzen helburua bideo produktora txiki bat sortzea da. Ideia hau bideragarria izan daitekeen jakiteko merkaturia bilatzen ari da. Merkatu horretan enpresak (beraien promozioa egiteko), eskolak, Udaletxeak, elkarteak, partikularrak e.a, sartuko lirateke. Dagoeneko eskola eta elkarteekin hitzegin du eta oso erantzun positiboa jaso du. Bere ideia azaldu digu, "momentu honetan bideo domestikoak edo eta bestela oso produktora garestiak daude eta nik erdi mailako produktora bat daukat buruan, kalitate aldetik maila antzekoa duena eta aurrekontu aldetik merkeagoa izango litzatekeena". Gerora begira bere perspektibak nahiko positiboak direla adierazi digu baina argi dauka ziurztatuta ezer ez dagoela.

Olatz eta Ana atxabaltarrak Udalak enplegua suspertu nahian sortutako "Arrisku Soldata" deritzaion programan lanean dabilta. Zortzi lagunek aurkeztu zuten euren ideia eta aurre proiektua. Hauen artean Olatz eta Anarena aukeratu ziren. Orain sei hilabete dituzte euren enpresa bideragarria izan daitekeen ala ez jakiteko. Sei hilabete hauetan soldata subentzionatzen zaie eta dagoeneko hiru hilabete egin dituzte, hortaz badaukate zer kontatu. Ierro hauetatik zorte on biei.



- **Izena:** Ana Garcia
- **Adina:** 31 urte
- **Ikasketak:** Historia
- **Enpresa ikerketa:** Zerbitzu turistikoak.

Anaren asmoa ibilbide turistiko batzuk egitea da. Oso garbi dauka Atxabaltan toki politak daudela eta hauek ezagutzeak pena merezi duela. Horrela bere ideia azaldu digu, "Atxabaltara etortzen den kanpotar asko ingurua ezagutu gabe joaten da eta hor hutsune bat dagoela uste dut". Anak dioskunez momentu honetan merkaturia bilatzen ari da, ideia berriak etengabe etortzen zaizkio baina hauek aurrera eramatea lan neketsua da. Aurrera begira ideia hauek bideratzeko enpresa bat sortzea izango litzateke bere asmoa. "Arrisku soldata" delakoari buruzko eritzia ematean honako hau esan digu: "Oso ideia eta aukera ona dela deritzot. Honez gain, edozein tokitara deitu eta Udaletxearen izenean lanean ari zarela esaten baduzu horrek bideak asko erretzen dizkizu".

JOSU
HARATEGIA
 URDAITEGIA-GOZOTEGIA
 KROASANTEGIA
 "JANARI PRESTATUAK"
 Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

ARETXABALETA
ITURGINTZA
 Durana, 16
 Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Amaia-Berri, S.L
 Gas- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia
 Otalora, 18 behea
 Tfno-Faxa: 77 06 49 **ARETXABALETA**

Artano
Taberna
 Herriko Enparantza
ARETXABALETA

FOTO

 Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

FELIX ARRESE
 Edari Banatzailea

KELER

El León
 Industrialdean
 Tfnoa: 79 60 65

HERRIAREN ITXURA BERRITZEKO ARAUAK MARTXAN

Gaur eguneko Atxalbaltako lurzorua antolatu eta erabilera ezberdinak zehazten dituzten Arau Subsidiarioak 1984/85. urtean idatzi ziren. Orain, ordutik 11 urte pasatu direnean, XXI. mendari begira eraikitzeke asmoa dagoen udalerrria abiapuntutzat hartuta, egin beharreko aldaketak egiteko ordua heldu zaio Udalari.



Berrikustapenaren zirriborroaren proiektua Jose Ramon Lombera arkitektuak garatu du 20 milioi pezetetako aurrekontuarekin, %75 Diputazioak ordaintzeko.

Baina, behin-betiko erabakiak biztanleen adostasunarekin hartu nahi ditu Udalak, horregatik arauen berrikustapenerako herriaren partaidetza bultzatu nahian hainbat ekintza antolatu ditu. Hauen artean egongo litzateke, otsailaren 7an Euskal Txokoan irekitako erakusketa publikoa.

Bertan Udalak proposatutako aurre laburpena azaltzen da. Panelen bitartez ikusi daiteke herritarroi egiten zaigun proposamen berria. Herritar guztiok izango dugu alegazio eta alternatibak aurkezteko aukera.

HERRITAR LANTALDEAK

Hirigintza saileko arduradunen asmoa eztabaida prozesu bat zabaltea da. Horretarako jasotako

proposamen guztiak kontutan izango dira. Horrela onartuko diren arau subsidiario berriak kontentzuan oinarrituko dira. Guzti hau aurrera eramanez ahal izateko herritar lantaldeak sortuko dira, eta euren zeregina arau subsidiarioaren berrikusketak egokienak iruditzen zaizkien Udalari aurkeztea izango da.


Aretxabaletako herrian hautatutako herritarrek, behar bezala informatuta egon eta gero, Arau Subsidiarioen berrosaketarako egokiak iruditzen zaizkien proposamenak edota erizpideak Udalari azaltzeko lana izango dute. Helburu hau lortzeko, parte hartzen duten herritarrek gai honetaz ikuspuntu ezberdinetatik informatuak izango dira, antolatuko diren bileren bitartez. Bilera hauek antolatuko dira herritarrek informazio nahikoa izan dezaten egokiak edo aproposak irizten zaizkien proposamenak aurkeztu

ahal izateko.

Udalak, proposamen, kontsulta edota gomendio bezala hartuko du partehartzaileak askatasun osoz hartutako azken erabakia.

Kontuak kontu, erakusketaren ondoren, proiektua argazki, grafiko nahiz mapekin ezagutarazteko, Herritarren Partaidetzako Taldeek ekingo diote lanari.

Partaidetza taldea 100 herritarrez osatua egongo da eta beraien lana izango da, arazoari ekitzeko eta berau konpontzeko erizpideei buruzko proposamenak egitea.



Partehartzaileen taldearen hautaketa:

100 herritarrez osatutako taldea Aretxabaletako herritarren artean aukeratuko da. Hirurogeita hamabost herritar zozketaren bidez aukeratuko dira, hauteskundera zentsuaren bidez, 25 herritar prozesu honetara beren kabuz aurkezteko aukera emango da. Beren kabuz aurkeztutakoak izena eman beharko dute horretarako jarritako lekuan. Dagoeneko aukeratuta daude ehun biztanle horietatik 75 udal-eroldaren arabera.

Hautatutakoak, 18 urtetatik gorakoak izango dira, eta izango diren bilera informatiboen ostean parte hartzeko interesa adierazten dutenak. Ezingo dute parte hartu inkompatibilitatea duten pertsonak (zinegotziek, administrazioaren ordezkariak, alderdi politikoetako buruzagiek).

Urtarrilaren azken egunetan Gipuzkoako Buletin Ofizialean kaleratu zen eta momentu horretatik bi hilabetetako epea dago, martxoaren bukaera arte, interesatuak sugerentziak edo tramitazioak tramitatu ahal izateko.

Goian dagoen plano hau Euskal Txokoko erakusketan dagoen esanguratsuen da. Bertan belzturik agertzen diren zatiak, interbentzio guneak izango lirateke, hau da, bereziki sail horietaz hartu beharko dira erabakiak. Bertan agertzen dira, Udalak egiten dituen proposamen berriak, esatebaterako, etxeak eraikitzeko tokiak zeintzu izan daitezkeen, industri erabilera izan dezaketen guneak, ibaiaren biderapena, e.a.

HELBURU OROKORRAK

1984/85 urteetan egindako, Arau Subsidiarioen idazketa eta onarpenak, Aretxabaletako hirigintz garapenaren hobekuntzan, aurrerapen handia suposatu zuen. Oraingo honetan, tresna haren berrikustari ekiten dio Udalak, elementu hauek kontutan izanik:

- Aipaturiko dokumentuaren ekarpen funtsezkoenak.
- Arau horien garapen praktikoa.
- Izan ditzakeen gabezi eta akatsak.
- Indarrean dagoen modeloaren balioa azpimarratu da.

* Aspektu hauek kontutan izanik, urrats berri bat eman nahi da:

- Hirigintz garapenaren zehaztapen handiago bat.
- Behar berrietara egokitzapena.
- Epealdi honetan sortutako baldintzetara egokitzapena.

UDA momentu onean dago

Preferente mailako UDA futbol taldea momentu onean dago. Dagoeneko ligako 24 partidu jokatu ditu eta klazifikazio generalean bigarren postuan aurkitzen da. Aurreko igandean, hilaren 19an UDak irabazi egin zuen Beti Gazte taldearen kontra, gol bateko abantailaz nagusitu zen. Datorren astean, hilaren 25ean kanpoan jokatzeko tokatzen zaio Anaitasunaren kontra. Liga bukatu arte maila honetan jarraituko balu, datorren urtera begira promozioan jokatzeko aukera izango luke.

UDAko nesken taldea ordea ez da horren zorte honeko. Klazifikazioan, azken bigarren postuan daude. Ea ba, aurrerantzean zorte hobea izaten duten

PELOTA: Errasti anaiak ohorezko kanpeonatuak jokatzen ari dira

Unai eta Ibon Errastik afizionatu mailan jokatzen dute. Momentu honetan ohorezko kanpeonatuak jokatzen ari dira. Zortzi talde daude kanpeonatuaren barruan, horien artean: Arrasate, Mañaria, Ortuella, Amurrio, Gasteiz, bi Nafar talde eta Aretxabaleta.

Kanporaketak hasi dituzte dagoeneko. Ibonek, Lizarran jokatu zuen azken laurdena joan den larunbatean, hilaren 18an, Balerdiren kontra. Emaizta 18-13koa izan zen Ibonen kontra. Datorren ostiralean, hilaren 24an gaueko 10,00etan bueltako partidua jokatuko dute Iturrigorri frontoian, baina kasu honetan Unaiak jokatuko du eta, ohorezko mailan aurrera jarraitu ahal izateko partidua irabazi behar du.

FUTBOL EMAITZAK

1º ERREGIONALA

ARETXABALETA-BETI GAZTE 1-0

1º JUBENILA II

ARETXABALETA-ZESTOA 8-1

NESKAK

ALOÑA MENDI-ARETXABALETA 1-0

SASKIBALOI EMAITZAK

KADETEA EMAKUMEZKOAK

-A Taldea-

ANDRAITZ-ALMEN 31-27

-B Taldea-

ESKORIATZA-ALMEN 22-47

PELOTA EMAITZAK

OHOREZKO MAILA

BALERDI-IBON ERRASTI 18-13

PAUSOKA HAUR ESKOLAK

Izen emate epea zabaltzen du: Martxoaren 1etik 17ra, 6etatik 7etara Pausokan



- **0-3** urtetako haurrak, talde egokituetan.
- **Ordutegi zabala:**
 - goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6ak arte.
 - Ordutegia moldatzeko aukera.
- **Jangela zerbitzuak:**
 - gozaria
 - bazkaria
 - askaria
 - Bertan gertatutako janaria
 - Haur bakoitzari egokitutako dieta
- **Logela**

Euskeraz hasi eta hezi

Dorletako Ama txirrindulari eskolaren aurkezpena

DORLETAKO AMA txirrindulari eskolak, 1995eko aurkezpena egin behar du otsailaren 25ean. Bertan 1995eko denboraldirako taldeetako partaideen izenak jakitera emango dira, 1go eta 2.en urteko **jubenilak**, eta 1go eta 2.en urteko **kadeteak** eta **infantilak** hain zuzen ere.

Aurkezpenean hona-

ko ekintzak izango dira: Goizeko 10,30etan Leintz Gatzaga Dorleta Santutegiko Ama Birginari eskaintza egingo zaio. Ondoren 10,30etan 1995eko denboraldiko kide eta babesleak aurkeztuko dira GURE AMETSA jatetxean. Eta aurkezpenari amaiera emateko luntxa izango da bertara gerturatuko diren lagun guztientzako.

Inurrategi anaiak berriz ere Nepalera begira

Dagoeneko 4 espedizio egin dituzte Inurrategi anaiak. Uda aldera berriz ere Nepalera joateko asmoa daukate. Dagoeneko proiektua idatzia dago eta euren asmoa **Cho Oyu** eta **Logde** egitea da, biak denporaldi berean eta modu alpinoan. Uztaila bukaeran edo abuztuaren hasieran abiatuko dira Nepalera. Abuztuaren 5etik 20ra bitartean izango da gerturaketa ondoren aklimatazioa Cho Oyu inguruan egingo dute. Irailaren erdi aldera Cho Oyu egiteko asmoa dute eta ondoren iraila bukaera eta urria hasiera bitartean Lodge. Ideia hortxe dago baina orain

tramitazioak egitea, dirua ateratzea e. a. gelditzen zaie.

Erakusketa arrakastatsua

Inurrategi anaiak erakusketa eta hitzaldi batzuk eman dituzte hainbat herritan, esate baterako, Donostian, Azpeitian, Arrasaten, e.a. Albertok adierazi digunez "erakusketa hau egitearen arrazoiak ezberdinak dira, alde batetik jendearen jakinmina asetzea, mendiko materiale eta tresneriataz, beste aldetik mendiarri buruzko gauza berri bat egitea, e.a. Orain artean oso arrakasta handia izandute erakusketa eta hitzaldiek.

Fran Miguel, xakean maixu



Franek xakean Gipuzkoako txapelketa absolutua irabazi zuen. Bere birtuterik onena zein den galdetu diogunean, honela erantzun digu: "Galduta dirudifen partiduei buelta ematea izango litzateke nire kualitate nabarmenatariko bat".

- Nondik datorkizu xakean jolasteko zaletasuna?

Ez dakit, familian ez dago inor ajedrezean jolasten dakienik. 11 bat urte genituenean erakutsi ziguten jolasten anaiari eta bioi eta ordituk aurrera gustatu egin zitzaigun.

- Kualitate berezirik edukitzea eskatzen du xakeak?

Ez du kualitate berezirik eskatzen. Garrantzitsuena entrenatzeko astia izatea da eta noski gustoko izatea. Beste edozein kirolean moduan gertatzen da ajedrezean ere, gustoko baduzu eta denbora ematen badiozu azkenean ondo jolastera iritsiko zara.

- Xakea kirola dela esango zenuke?

Oso galdera zaila da hori, nik ez dut planteatu ere egiten. Kualifikatuek %33a kirola, %33 artea, eta %33 jokua dela esaten dute.

- Nola entrenatzen duzu?

Normalean 5 minututako partida azkarrak jolasten ditut. Orain Donostian ikasten nabilenez sake Elkarte batetara joaten naiz eta han partidak aztertzen ditut.

- Kontzentrazio handia behar da xakeko partida batean?

Bai, baina egia esan partida batek irauten duen denboran ez duzu eserita egon beharrik, jaiki egin zaitezke e.a.


ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ☎ 79 32 34
ARETXABALETA

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagarre 4 ☎ 79 10 96
ARETXABALETA



EGUZKI GRAF

Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41


Gaztetxo artistak gure eskoletan



Almen ikastolako gaztetxoek, lehen gure gurasoek jolasten zituzten jokuei buruzko lantxo bat egin dute. Jakina da, ez direla berdinak lehengo eta oraingo jolasak. Gauza polita da, hortaz, oraingo haurrek lehen jolasten ziren jolasak ezagutzea. Horretan ibili dira behintzat Almeneko 2. mailako neska-mutilak. Horretarako haur bakoitzak euren gurasoei galdetu behar izan die lehen jolasten zen joku baten berri. Oraingo honetan, 8 urte dituen **Joseba Bitorianoren** lana aurkezten da. Josebak berak bakarrik idatzi du ordenagailuz urteetan zehar hain ezaguna izan den **TORTOLISKA** jokua nola jolasten zen.

TORTOLISKA

6 tortolis eta pelota bat behar dira.
Tortolisak 4 alde ditu. Lehenengo tortolisak gora botatzen dira eta gero pelota gora bota eta bitartean tortolisei buelta eman behar zaie eta hartu.



MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

PORTASOL AROZTEGIA

Basabe Poligonoa, 1
Tfnoa: 79 34 84

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK URKULU, S.A.

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA


*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



Gizakia, X. Letek esaten duen lez, hor ari da, ezaren gudaz baietza sortuz guran, eta beti aurreraño bidean, zorionaren egarriz.

Bakoitzari, bere zorion bidea jorratzea dagokio, eta askok, ezkontza bidea (okerra?) aukeratzen dute. Ez dakigu, bidea berez okerra den edo ikuspen okerraz baliatzen diren partaideek, zuzen, goxo eta ederra zena zapuzteko.

Hamaika aldiz entzun ohi dugu: "Hi, ondo bizi haiz! "Ez hadi ezkondu!" Baina...beno! Ezkontza ez al da ba aukerako gauza bat? Zer dela eta, damutze hain azkarra? Ez al dute askatasun osoz hautatu? Esaten diren alukeria guzti hauek, ez dakigu nagusi/heldu izatearen "tik" bat diren edo frantsesek esaten duten bezala "pour parler"bat.

Argazkiko mahai inguruan bildu zirenek despedida eskeini zioten bere lagun urko bati, zorion atea hurbil zuelakoan. Eta desperida, Rokenean izan zen, gaurko Durana 34ko behekaldean zegoen tabernan. Argazkilaria heldu orduko kafea eta pattarrari gogor ekinda zeuden.

Mantel zuri inguruan (ez gaurko paperezko mantel "inpresentableak") eseri zirenak hauek izan ziren:

Ezkerretik hasita: Santi Bengoa, Joxe Agirre, Lorentxo Peña, Angel Agirre, Ramon Antxia, Karmelo Igartua, Paul Zuazabeitia eta Miguel San Juan.

Zutik: Pepe Urtubi, ezezaguna, Paulo Zuazabeitia eta Angel Ezkerra.

Despedida Angel Agirrerri egin zioten.

Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko

Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

J. ALTUNA

Zurgindegia

Sukalderako

haltzariak

Basabe Poligonoa, A-2-3

☎ 79 72 55 Aretxabaleta

GUREA

TABERNA

JATETXEA

Durana Kalea

Tfnoa: 79 20 64

MATIKUA

Taberna

Aozaratza auzoa

☎ 79 16 68

ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak

Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14

Tfnoa: 79 16 10

IBARRA



ESTANKOA

Tabakoa eta

ikasmateriaia

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Miloiak zementotan



J.J. Aretxaga

Zementotan eta urbanismoan samur gastetan dira hemen miloiak. Hamalau miloi gastatuko ei dira erdiko kalea konponketan. Futbol zelai (bueno zelai, zelabait esateko) barria be laster bukatuko dute. Auskalo zenbat kostatu den inbentoa, gero gastuak 'arrazionalizatu' egin behar direla esango dute. Kontua da martxoren 5ean esteinatuko dela, **UDA** eta **Eskoriatzaren** arteko partiduarekin. Ia futbol zelaia banatzen ikasten duten, bestela Eskoriatzan be horrelako beste obra bat egiten hasiko dira.

Zorionez jaietan diru gutxiago gastetan da. Ideiak izaten dira inportanteak horrelakotan. Ideietatik orijinal dabiltzala erakutsi dutenak **Aratz** taldekoak izan dira, Atzeratuen Aldeko taldekoak (portzierto, izena ze polito asmatuta). **Adolfo Etxebarriak**, **Jokin Antxiak** eta konpainiak Goenkalekoak ekarri dituzte

oraingoan. Ideia barriek bizitasuna emuten diote herriari. Udaletxean badaukate zer ikasi.

Batzuk etorri eta beste batzuk alde egingo dute. Santa Ageda mutilei bukatu zaie txoiloa. Baina denei ez, dantzan egin duten lau mutikoek beste aukera bat eukiko dute hamar urte barru edo. Eurok izan ziren gainera txalo gehien jaso zituztenak, **Martin Antxia**, **Josu Gastañaga**, **Aitor Aiastui** eta **Beñat Zamalloa**. **Iker Alejolaleiba** be oso txalotua izan zen.

Soziedadeetan beti dago mugimentua. Eta mugimentua dabilenez, aldaketak be bai. Jakin dut Apotzan Jabier Uriarte jarri dutela lehendakari. Murualden, barrez, jende gehiago aldatu dela ere enteratu naiz. **Roberto Urreta** izango da lehendakari barria, eta berarekin **Iñaki Errasti**, **Jose Inazio Arenaza**, **Inazio Eraña**, **Anjel Loidi** eta **Jose Antoio Elortondo** sartu dira batzordean.

Beste barritasun bat be badago. Maltzaga-Urbina autopistaren proiektua dela eta, Plataforma herrikoi barri bat sortu da bailaran: **Haran Bizia**. Lehengunean jakin genuen horren barri, **Josu Sarasua** atxabaltarrak ATBn urten zuenean talde horren izenean berbetan, Pareak Jokuan eztabaida programan.

Eta besterik ez. Desietan nago udabarria ailegetako. Ikusi dituzue kaleko arbolak lorán?

A R E T X A Z O K A

LANA

• Instalazio merkeak egiten dira:

- Oholtza
- Lixaketak
- Barnizatuak
- Parketa

Deitu telefono hauetara: 79 65 25

79 07 62

71 63 95

Deitu eta presupostua egingo dizugu!

• Mota guztietako konponketak egiten dira bizikletetan. Santa Kurtz Kalea, 2-5
Telefonoa: 79 81 90

ETXEBIZITZA

• Baserri bat salgai dago Bergaran. Interesatuok deitu
71 63 31 telefonora.

• Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden..
Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

• Jantzitako etxea alokatzen da.

Zaraia, 2 kalea 3. pisua.

Telefonoa: 79 17 08

SALEROSKETAK

• Bigarren eskuko R-11 bat salgai dago. Matrikula SS-V. Motorra: 1.600. Egoera onean dago. 250.000 pta, negoziagarriak. Interesatuok deitu:

79 20 94 telefonora eta Xabierrez galdetu.

Jesus Errasti

“Mozorrotzea asko gustatu
izan zait beti”



Jesus Errasti “Ladrillos”

“Mozorrotzea beti izan da gauza polita niretzat. Lehen Andramaihetan eta aratus-teetan mozorrotzen ginen eta sari asko irabazitakoak gara. Baina orain zahartuta nago gauza horietarako. Orain gazteek izan behar dute guri lekua hartu behar digutenek.”

- San Valentín eguna nola ospatu zenuen

Oso ondo, nire emaztea eta lagunekin bazkaria egin genuen Matikuan.

- Oraindik ere maiteminduta zaude?

Bai, eta egunetik egunera gehiago gainera, Arantzazuko Ama Birjina baino gehiago maite dut emaztea.

- Zer egin behar da horrebeste denboran maiteminduta egoteko? Horretarako lehenengo urte askoan bizi. Iaz urrezko ezteiak egin genituen eta diamante ezteiak ere egin nahi nituzke.

- Nondik datorkizu “Ladrillos” ezizena?

Nik beti eraikuntzan lan egin dut, ladriloekin...eta Patxi “Largok” jarri zidan izena horrela.

- Beti gustatu izan zaizu mozorrotzea?

Bai, eta asko gainera, gu beti familia osoa mozorrotu izan gara.

- Erretiratu ostean zer moduz bizi zara?

Gero eta hobeto. Baratza lantzen dut, txakurra, katua eta astua gobernatu, txikitoak hartu e.a.

- Astoa ere baduzu orduan?

Bai, eta Pontxita dauka izena, txabolan egoten da.

- Zure bizitzan izandako zer anekdota kontatuko zenuke?

Behin Arantzazura joan ginen, eta han geundela konturatu ginen 14 apostolu zeudela 12 egon beharrean. Guri beti erakutsi digute eskolan 12 apostolu direla eta orduan han zegoen fraile bati galdetu genion horren zergatia. Hauxe erantzun zigun: bata porteroa zela Iribar zarautzarra eta bestea Urtain zestuako harrijasotzailea, horrela apostoluek indar haundiagoa zutela.

- Aretxagazeta irakurtzen duzu?

Bai, beti irakurtzen dut, eta gainera logurea kentzen didala esan beharra daukat, hori irakurri artean ezin izaten naiz ohera joan eta.

- Zer botatzen duzu faltan herrian?

Jubilatuak dantzan egiteko toki bat.



Jose Luis Elkoro
(129 bazk. -zkoa.) dugu
aurreko alean saritu
surtatu zena. On egin.

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Burgales Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu eta gainera ARETXAGAZETako bazkide izan.

JAKI GOXOAK ETA GIRO ATSEGINA

Durana, 12 ARETXABALETA
Tfnoak: 79 20 63 / 79 17 11

BURGALES JATETXEA

Burgalesenean perretxikuekin egin-
dako plater asko eskaintzen da, zain
da urte guztian zehar eskaintzen den
perretxiko mota?

a. - Zizak _____

b. - Onddoak _____

d. - Gibelurdinak _____

* Aurreko aleko erantzuna, “arroza
perretxiko eta barazkiekin” zen.



Erantzuna:

.....

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Otsailak, 25

DANTZALDIA

Gaueko 11,30etan **Cubana Tropical Orkestarekin** dantzaldia izango da eta orkestraren atsedenaldian kamareroen lasterketa.

Otsailak 26, domeka

KONTZERTUA

Aratustetako Kontzertua Udal Musika Bandarekin, Novedades Aretoan, eguerdiko 12etan. Arratsaldeko 5,30etan **KARAOKE** eta **DISKOTEKA**.

Martxoak 10, eguakotxa

ZINEA

Alargunen gailurra

DANTZALDIA

Belea Band taldearekin.

OÑATI



Otsailak 26

KONTZERTUA

Udal musika Bandak eskeiniko du kontzertua Santa Ana antzokian eguerdiko 12,30etan.

Otsailak 28, martizena

KALE ANTZERKIA

Azkona taldearekin arratsaldeko 5etan.

ESKORATZA



Otsailak 23, eguena

UMEENTZAKO JAIALDIA

"Azkona" taldearen laguntzaz arratsaldeko 4,30etan plazan.

Otsailak 28, martizena

KALEJIRA

Arratsaldeko 5,30etan Eskoriatzako bandarekin kalejira.


ESKORATZAKO TXARANGA

Arratsaldeko 5,30etan, lehen aldiz, Eskoriatzako bandako zenbait kidek osatutako txarangarekin dantza egiteko aukera izango da.

DANTZALDIA

Gaueko 10,30etan "**Izadi**" taldearekin dantzaldia goizaldera arte.dantza egiteko aukera izango da.

ARRASATE



Otsailak 23

ZINEA

Azul filmea botako dute Amaia Antzokian gaueko 9,30etan. Sarrera 300pta., gazte-txartelarekin 250pta.

Otsailak 25, zapatua

SUPER BAT IHAUTERI FESTA

Musakolako Kiroldegian arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara.

PLAY BACK

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian "Sabado regular VI PLAY BACK JAIALDIA.

DANTZALDIA

Gaueko 11etatik goizaldera arte **DANTZALDIA HAITZAMA** Taldearekin.

Otsailak 28, martizena

PAILASOEN EMANALDIA

Arratsaldeko 5etan Sebero Altube Plazan txikientzat **BIZKOR, KOXKOR** eta **ENPRESARIO JAUNA**, pailasoen emanaldia.


FANFARREA

Arratsaldeko 5etan, **SASAMIKU** fanfarrearen irteera. Eta ondoren arratsaldeko 6etan, Herriko Plazan **AUSKALO HANKAPALO** taldearen emanaldia.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK



Lurrindegia Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

MARI-MERKE

Ihaurietarako mozorro guztiak

Lezama Merkatal Zentrua **ARETXABALETA**

DON VIDEO

PELIKULARIK BERRIENAK

Lezamako Merkatal Zentrua **ARETXABALETA**

ARETXABALETA

BEHARREZKO
TELEFONOAK



Otsailak 25, zapatua

**DORLETA AMA TXIRRINDULARI
ESKOLAREN AURKEZPENA**

Goizeko 10,30etan Leintz Gatzagako Dorleta Santutegiari eskaintza. Ondoren, 11,30etan, 1995eko taldeko kide eta babesleen aurkezpena Gure-Ametza jatetxean. Bukatzeko, eguerdiko 12,30etan, lunch-a izango da.

KINTO AFARIA

1950. urtean jaiotakoek kinto afaria egingo dute Taberna Berri jatetxean. Joan nahi duenak Taberna Berri jatetxean eman beharko du izena.

Otsailak 24, ostirala

HITZALDIA

HIES/SIDAri buruzko hitzaldia, TRIL emakume taldeak antolatuta. Hizlariak, Bermeoko TXO HIESA T4 taldekò, Bakarne eta Ane eta Arrasateko HIES EKIMENA taldeko partaide den Domi. Otsailaren 24an ostiralean izango da hitzaldia Loramendi Kultur Elkartearen arratsadeko 8etan.

Otsailak 26, domeka

ARATUSTEAK

Ikus egitarau berezia

**Ondo pasatu aratusteetan,
baina mozturoririk eee...!**

Almeneko B.O. ikasleek, ikasketa bidairako diru laguntza lortzeko asmoz, aratuste egunez, goizeko 10ak aldera tartak salduko dituzte Durana kalean. *Anima zaitzte eta ihauteri goxoak pasa itzazue!*

SANTA AGEDA MUTILAK

Arratsaldeko 7etan herriko plazan banakoa eta desafioa dantzatuko dute azkeneko aldiz.

Martxoak 5, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Irteera Dorletara izango da goizeko 10etan.

PATINAJE IKASTAROA

Deba Garaiko Euskera eta kirol zerbitzuak antolatuta, datorren martxoaren 4ean eta 18an, goizeko 9etatik ordu 2etara patinaje ikastaroa izango da Atxabaltako Kirol-Etxean.

Prezioa: Kirol-Etxeko bazkideentzat: 1.400 pta. Bazkide ez direnentzat: 1.800 pta. Apunta zaitzte Kultur Etxean, Telefonoa: 79 10 05

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kirol-etxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 09 70
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkartea 79 33 99
- SOS Deiak 088



**AZKENA
TABERNA**

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa, ez begiak itxi.



Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi.



centro
hogar
MUEBLES

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

Sartzen dena:
zeuk behar dituzun altzariak.

ARRASATEKO BARIANTEAN